

**KULTURA SAILA****5224**

ERABAKIA, 1995eko azaroaren 24koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Antoñanako (Campezo, Araba) Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera emateko eta horri buruzko informazioa jendaurrean jartzeko dena.

Euskal Autonomi Elkarateak Kultura Ondareari dagokion erantzukizun osoa hartu zuen bere gain Estatutuaren 10.19. atalaren bitartez Konstituzioaren 148.1.16. atalari jarraiki. Halaber, kultura ondarea esportaziotik eta espoliaziotik babesteko estatuak ezarritako arauak ere bete beharrean dago Euskal Autonomi Elkartea, irailaren 26ko 3069/1980 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Eusko Legebiltzarrak Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zuen kultura ondarearen alorrean zeukan aginpide osoaz baliatuz. Lege horrek arautzen ditu Euskal Autonomi Elkarreko Kultura Ondasun Sailkatuak izendatzeko bideak.

Antoñanako Hirigune Historikoaren garrantzi arkeologikoa ikusirik eta Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako erabaki proposamena kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT:

*Lehen.*– Antoñanako Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera ematea, Erabaki honen I. Eranskinean agertzen den mugaketaren arabera eta II. Eranskinean agertzen den deskribapena aintzakotzat hartuz.

*Bigarrena.*– Hogei eguneko epea irekitzea, erabaki honek eragiten dien ondasunen jabeek nahiz beste interesatuek alegazioak egin ditzaten eta egoki irizten duten dokumentazioa aurkez dezaten, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko 30/1992 Legearen 86. atalaren arabera. Espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentruan dago ikusgai, San Antonio kalea 2., beheko solairua, Gasteiz.

*Hirugarrena.*– Espedientearen izapidaketarekin jarraitzea indarrean dauden xedapenen arabera.

*Laugarrena.*– Campezoko Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei honako hau jakinaraztea: esparru arkeologiko honetan egin beharreko edozein obraren ondorioz arkeologi indusketak egin behar izatea gertatuz gero, obra edo lan horren promotoreak dagokion arkeologi egitasmoa aurkeztu beharko diola aurretiaz Foru Aldundiari, hala baitio Euskal Kultura Ondarearen Legearen 45.5. atalak.

**DEPARTAMENTO DE CULTURA****5224**

RESOLUCIÓN de 24 de noviembre de 1995, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa expediente para la inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco a favor de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Antoñana, municipio de Campezo (Álava), con la categoría de Conjunto Monumental, y se abre período de Información Pública.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16.º de la Constitución y a través del artículo 10.19.º de su Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de patrimonio cultural, así como el cumplimiento de las normas y obligaciones establecidas por el Estado para la defensa del mismo contra la exportación y la expoliación, de acuerdo con el Real Decreto 3069/1980, de 26 de septiembre.

Como fruto de dicha competencia exclusiva en materia de patrimonio cultural, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco. Esta Ley rige los procedimientos de declaración de Bienes Culturales de la Comunidad Autónoma Vasca.

Visto el interés arqueológico que presenta el Casco Histórico de Antoñana, la solicitud de declaración monumental presentada por la Diputación Foral de Álava y atendiendo a la propuesta de resolución elaborada por los Servicios Técnicos de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

*Primero.*– Tener por incoado expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Antoñana, conforme a la delimitación que figura en el Anexo I y la descripción que obra en el Anexo II de la presente Resolución.

*Segundo.*– Abrir un período de Información Pública a los propietarios afectados y demás interesados, por un plazo de 20 días, durante el cual podrán efectuar alegaciones y presentar cuanta documentación estimen pertinente según previene el artículo 86 de la Ley 30/1992 del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle San Antonio 2 bajo de Vitoria-Gasteiz.

*Tercero.*– Continuar la tramitación del expediente, de acuerdo con las disposiciones en vigor.

*Cuarto.*– Hacer saber al Ayuntamiento de Campezo, así como a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, que conforme a lo establecido en el artículo 45.5.º de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco en los casos en que la actuación arqueológica se haga necesaria como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a esta zona arqueológica, el promotor deberá presentar el correspondiente proyecto arqueológico ante la Diputación Foral para su aprobación previa a la ejecución de aquéllas.

Ez da indusketa lanik egin beharrik izango lurpean egindako aldaketa edo obren ondorioz lur azpiko substratu arkeologikoa galduta dagoela egiaztatzen den lekuetan, baina kasu horietan bakar bakarrik.

*Bosgarrena.*— Erabaki honen berri ematea Campezo Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari.

*Seigarrena.*— Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko azaroak 24.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,  
JOSÉ MARÍA AGIRRE ESKISABEL.

Se entenderá que la actuación arqueológica no es necesaria exclusivamente en aquellos elementos en los que se certificaren modificaciones, obras o alteraciones del subsuelo que hubieren motivado la eliminación del sustrato arqueológico.


*Quinto.*— Notificar la resolución al Ayuntamiento de Campezo y a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

*Sexto.*— Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 1995.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,  
JOSÉ MARÍA AGIRRE ESKISABEL.

## I. ERASKINA/ANEXO I



Euskal Kultur Ondarearen Zentrua

Centro de Patrimonio Cultural Vasco

Kultura Saila  
Eusko JaurlaritzakDepartamento de Cultura  
Gobierno Vasco

Lurraldea / Territorio:	ARABA	
Udalerria / Municipio:	CAMPEZO	
Data / Fecha:	1995/10/13	Eskala / Escala: 1:1.000
Planoa / Plano:	ANTOÑANAKO ARKEOLOGIA GUNEA. Mugapen Planoa.	
	ZONA ARQUEOLÓGICA DEL CASCO HISTÓRICO DE ANTOÑANA. Plano de Delimitación	
		Plano zk. / Plano nº:

## II. ERANSKINA

ANTOÑANAKO HIRIGUNE HISTORIKOAREN  
DESKRIBAPENA

Antso VI.a Jakituna, Nafarroako Erregeak, sortu zuen herri hau defentsarako helburu garbiekin, haren boterea Nafarroako mugetatik at bere erresumaren mendebaldeko mugetara hedatu nahian.

Hirigunea mendebaldera jaisten den mendi-hegal batean dago kokatua, horregatik, babes nagusiak beheko aldean daude. Herriaren plano arkitektonikoan ifarraldetik hegoaldera doazen bost kale paralelo daude eta horien ardatza Kale Nagusia da. Kale horren bi muturretan dorre gotor zahar bat eta parroki eliza daude.

Harresiaren hasierako funtzioa, babestekoa alegia, aldatu egin da eta etxeak harresiari itsatsi zaizkio haien hormataletan baoak agertzen direlarik. Ekialdean goiko solairuak harresiei itsatsi zaizkie eta behekoetan arkupean kale bat geratzen da.

Oin berrikoak diren hiru etxe izan ezik, gainerako guztiek egitura zaharra gordetzen dute, eta horietako askok gainera, sabaiko habeak agerian dituzte. Beste etxe batzuk, egitura zaharra gordetzen duten arren, zaharberriak daude eta ez dituzte sabaiko oholak agerian.

Orubeei dagokionez, bi motatakoak dauzkagu: bate-tik, 4,5 eta 6 m arteko zabalerako fatxada dutenak eta, bestetik, 8tik 12ra artekoa duen bat. Etxeen altuerak ez dira berdinak, baina bi eta hiru solairutako etxeak nagusitzen dira (%35a eta %31a hurrenez hurren dira horrelakoak). Horiez gain badaude solairu bakar batekoak, beheko solairua gehi teilatu azpia daukatenak, (%19a), eta lau solairutakoak ere (%10a baino ez).

Arkeologiaren aldetik Antoñanan aipatu beharreko elementuak hauexek dira: harresia, bizitoki edo asentamentuaren jatorria den gaztelua, San Vicente Mártir-en eliza, dorre gotorra eta dorretzarra.

## ANEXO II

DESCRIPCIÓN DEL CASCO HISTÓRICO DE  
ANTOÑANA

Villa fundada en 1182 por el monarca navarro Sancho VI el Sabio, con sentido claramente defensivo, para fortalecer su poder más allá de las fronteras navarras, hacia los límites occidentales de su reino.

El núcleo se emplaza en una ladera con declive hacia el W, colocándose por ello sus principales defensas en la parte baja. Su plano arquitectónico se organiza en cinco calles paralelas, orientadas de N a S. El eje axial es la calle Mayor, en cuyos extremos se sitúan una antigua torre fuerte y la parroquia.

La función defensiva de la muralla ha sido sustituida por una función constructiva ya que las casas se han adosado a ellas apareciendo vanos en sus lienzos. En el costado E se adosan a la muralla las plantas altas, dejándose en la planta baja una calle porticada.

Excepto tres casas que son de nueva planta, el resto de las casas presentan estructura antigua, conservando muchas de ellas la estructura de madera de viguería al descubierto. Otras casas, aunque son de estructura antigua, están reformadas y no dejan las vigas al descubierto.

En cuanto a los solares de ocupación tenemos dos tipos: los de anchura de fachada entre 4,5 y 6 m. y uno de 8 a 12 m. Las alturas de las edificaciones son variables, aunque se da predominio de dos tipos: las casas de dos plantas con el 35% del total y las de tres alturas con el 31% del total. Además existen de una única altura, la planta baja y entrecubierta con huecos a la fachada con un 19% del total y de cuatro plantas que representan únicamente el 10%.

Como elementos destacables arqueológicamente dentro del panorama de la villa de Antoñana, hay que mencionar la Muralla, el Castillo origen del asentamiento, la Iglesia de San Vicente Mártir, la Torre Fuerte y el Torreón.